

## Berrizko Foroaren Akta\_Herrigunea

### Acta del foro de Berriz\_Casco urbano

<b>Data/Fecha:</b>	<b>Ordua/Hora:</b>	<b>Lekua/Lugar:</b>
24/11/2014	19:40-21:00	Kultur Etxea / Casa de Cultura

Udaletxea/Ayuntamiento	Herritarrak/Ciudadanía	Aholkularitza enpresa/Empresa consultora
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orlan Isoird (Alkatea/Alcalde)</li> <li>• Xabier Zaldua (Zinegotzia/Concejal)</li> <li>• Francisco José del Pino (Zinegotzia/ Concejal)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 29 herritar / 29 ciudadanos</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Juanjo Allur (Siadeco)</li> <li>• Loinaz Azurmendi (Siadeco)</li> </ul>

#### 1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Alkateak, sarrera modura, hasiera ematen dio Foroari bertaratuei ongietorria egin eta eskerrak emanez euren asistentziagatik. 2013 urtean lehen aldiz martxan jarritako Aurrekontu Parte-hartzaileen prozedurari jarraipena emanez, bi prozedura garatuko direla aurten adierazten du, bata herrigunerako eta bestea auzune edo landa-gunerako, lehenengora 100.000 euro eta bigarrenera 50.000 euro bideratuko direlarik. Hitz ematen die jarraian, aholkularitza enpresako kideei, saioaren dinamizazioari ekiteko.

Aholkularitza enpresako teknikariak parte-hartze saioaren testuinguraketa egiten du; Durango Merinaldearen Amankomunazgoaren enkarguz, Siadeco enpresa arduratuko da egingo diren lau saioen dinamizazioaz eta prozedura guztia koordinazio teknikoaz, Berrizko Udalarekin elkarlanean. Saioetarako planteatutako metodologia iazkoaren berdina izango da: bi saio ireki izanik, lehenengoan herrigunerako 100.000 euro zertarako inbertitu herritarren proposamenak jasoko dira, eta bigarren foroan (abenduaren 11an) bozketa prozesu baten bitartez saiora bertaratuek erabakiko dute zein izango diren lehenetsitako proposamenak.

Herritarren parte-hartze prozesura jarritako partidaren izaera dela eta, inbertsioak izan behar dutela ere gogorarazten da. Jarraian, saioak bi zati izango dituela azaltzen du teknikariak: lehen zatian Udalak iazko foroetako proposamenen egoeraren berri emango du eta bigarren zatian, 2015 urteari begira, proposamen eta eskaera berriak jasoko dira herritarrengandik.

#### 1. Bienvenida e introducción al Foro

El Alcalde, a modo de introducción da comienzo al foro dando la bienvenida y las gracias a los asistentes a la sesión. Indica que el Ayuntamiento ha decidido dar continuidad al proyecto de Presupuestos Participativos puesto en marcha el año pasado, con mejoras sustanciales. Por un lado serán dos procesos diferenciados, uno para el núcleo del municipio y otro para los barrios o entrono rural. Por otro lado, las partidas destinadas son también mayores, 100.000 para el primero de los procesos y 50.000 euros para el segundo. Seguidamente, cede la palabra a los miembros de la empresa consultora para comenzar con la sesión.

El técnico de la empresa consultora contextualiza el encuentro dentro del marco de Presupuestos Participativos del Ayuntamiento de Berriz; por encargo de la Mancomunidad de la Merindad de Durango, será la empresa Siadeco la encargada de dinamizar las cuatro sesiones de participación y de coordinar todo el proceso, junto con la colaboración del Ayuntamiento de Berriz. La metodología planteada es la misma del pasado año: se plantean dos reuniones abiertas, en la primera se recogerán las propuestas y peticiones de los ciudadanos en relación al destino de los 100.000 euros en el casco urbano, y en el segundo foro (a celebrar el 11 de diciembre), a través de un proceso de votación, entre todos se decidirá el orden de prioridad de las propuestas.

Se recuerda también a los asistentes que la partida destinada a este proceso de participación es para inversiones. Seguidamente el técnico explica que la sesión de hoy tendrá dos partes, en la primera se dará cuenta de la situación de las propuestas y peticiones enumeradas en los foros del año pasado, y en la segunda se recogerán nuevas propuestas de la ciudadanía de cara al 2015.

## 2. Iazko foroako proposamenen egungo egoera

Alkateak iazko foroan egindako inbertsio eskaeren egungo egoeraren berri ematen du. Ondorengo bostak izan ziren iazko foroan lehenetsitako proposamenak:

- Berrizbeitia Auzoan aldapa guztian barandaila ipintzea. Iturritzako obra proiektuaren barruan kokatzen da eskaera eta urte amaierarako egina egotea aurreikusten da.
- Kiroldegiko gradetan itxitura bat ezartzea tenperatura aldaketen arazoari aurre egiteko. Ekimen hau ere garatzen ari da Udala eta laster amaituta egotea espero da.
- Urzabal bulder-skate moldatzea, panel berri bat ezartzea. Egina dago jada.
- Herri baratzak jartzea (deposituko mendia, Legaño errekaaren atzealdea, ikastola eremua, Abeletxe ingurua...). Proiektua landua dago eta lursailen egokitzapen fasea aurrera eramaten ari da Udala.
- Institutuko gimnasioan saskibaloiko bi saski ipintzea. Jarriak daude jada.

Iazko prozesuan lehenetsitako 5 ekimen izanik horiek, beste proposamen batzuk ere egin zituzten herritarrek eta Udaletik 2014 urtean zehar garatutako lanen berri ere eman du Alkateak. Ondorengoak izan dira:

- Beheko bidegorrian nagusientzako gimnasiako aparatuak ipintzea. Egina.
- Futbol zelaiko instalakuntzak hobetzea (zoru labaingarria). Egina.
- Lehendakari Agirreko zuhaitzen "poda". Egina.
- Haur parkean konponketak eta estaltzea. Konponketa eta egokitzapen lanak bideratu dira bi haur parketan eta parkeren bat estaltzearen eskaeraren inguruan erdiguneko parke bat eta probalekuaren proiektua landu dira. Parkeko proiektuaren aurrekontua 75.000 euro inguruan kokatzen dela adierazten du Alkateak.
- Irisgarritasun arazoak konpondu (espaloiak jaitsi, berritu...) Iturritza eta inguruko kaleetan (Matza, Bidegain...). Proiektua garatua dauka Udalak eta egikaritzea hasia dago jada.
- Herri guneko merkataritza eta aisi gunetara hurbiltzeko aparkalekuak eta argiteria publikoa. 39 aparkaleku berri sortzeko proiektua landua dauka Udalak eta bi hilabete barrurako horiek martxan egotea aurreikusten da.

## 2. Situación actual de las propuestas del foro del año pasado

El Alcalde da cuenta de la situación actual de las peticiones de inversiones recabadas en el foro del año pasado. Fueros estas 5 las propuestas priorizadas por parte de la ciudadanía en los foros del año pasado:

- Colocar una barandilla en la cuesta del barrio Berrizbeitia. Esta petición se sitúa dentro del proyecto de obras de Iturritza y se prevé que estará terminado para finales de año.
- Acondicionar las gradas del polideportivo; cerramiento para hacer frente a los problemas con bajas temperaturas.
- Mejorar la instalación de Urzabal bulder-skate, colocar un panel nuevo. Actuación finalizada.
- Huertos urbanos (monte del depósito, detrás río Legaño, zona ikastola, zona Abeletxe...). El proyecto está elaborado y el Ayto. está en fase de acondicionamiento de los terrenos.
- Colocar dos canastas en el gimnasio del instituto. Están colocadas.

Siendo las anteriores las 5 propuestas priorizadas en el proceso del año pasado, también se hicieron otras peticiones y el Alcalde explica los trabajos desarrollados por parte del Ayuntamiento a lo largo del 2014. Han sido las siguientes:

- Colocar aparatos de gimnasia para personas mayores en el Bidegorri de abajo. Ejecutado.
- Reparar instalaciones en campo de fútbol (suelos resbaladizos). Ejecutado.
- Poda de los árboles de Lehendakari Aguirre. Ejecutado.
- Reparación y cubrimiento de los parques infantiles. Se han llevado a cabo reparaciones en dos parques infantiles y se ha elaborado un proyecto en relación al cubrimiento de un parque céntrico y el probadero. El Alcalde menciona que el proyecto de cubrimiento del parque tiene un presupuesto de unos 75.000 euros.
- Accesibilidad (rebaje de aceras, arreglo de aceras...) Iturritza y calles aledañas (Matza, Bidegain...). El proyecto está elaborado y se ha comenzado con las medidas correctoras.
- Aparcamientos y alumbrado público para facilitar el flujo de personas a zonas comerciales y de ocio del centro. Proyecto elaborado, con 39 nuevos aparcamientos y se prevé que estén disponibles en dos meses.

Horrela, hasiera batean 60.000 euroz hitz egiten bazen ere iazko foroetako eskaeren inguruan Udalak urtean zehar bideratutako lanen aurrekontua guztira 333.310,33 eurokoa izan da.

Así, aunque en un principio se habló de 60.000 euros, las actuaciones llevadas a cabo por parte del Ayuntamiento en relación a las peticiones del año pasado, el presupuesto asciende a 333.310,33 euros en total.

### 3. Herritaren partehartzea: 2015erako proposamen eta eskaerak

Saioa bertaratutako herritarrak taldeka bildu dira jarraian eta aholkularitza enpresak prestatutako fitxak banatu zaizkie talde barruko lana egiten hasteko. 20 minutuz bilduta egon ondoren talde bakoitzeko bozeramaileari eskatu zaio talde horretan ateratako proposamenak aipatzeko.

### 3. Participación ciudadana: propuestas y peticiones de cara al 2015

Seguidamente, los asistentes a la sesión se han agrupado, y en base a la ficha para la recogida de propuestas elaboradas por la empresa consultora, han comenzado con el trabajo en grupo. Al cabo de 20 minutos, se les ha pedido a los interlocutores de cada grupo que mencionen sus propuestas.

Proposamenak aztertuta, honakoak izan dira jasotako eskaerak:

Una vez analizadas, las propuestas obtenidas son las siguientes:

1	Eskolako eskaileradun bi guneak estali/teilatua ipini (jangelarako eta gimnasiorako sarbideak)
2	San Juan Ebanjelariaren Elizan ematen diren ur filtrazioen azterketa
3	Futbol zelaian jokalarientzako moduluko aldagelak
4	Skate gunea Berrizburun
5	Iturritza eta Zengotitabengoa kaleen arteko eraikinean mural-graffitti bat egin
6	Sarria auzoko argiztapena
7	Aparkalekuak Bidegainen
8	Jezarleku gehiago, egurrezkoak, Geltokin eta Berrizburu deponitorako pasealekuan (Legaño bidegorria)
9	Autopistako zubian zaraten kontrako panelak ipini
10	Zengotitabengoa kalean Mazagako norabidean aparkaleku bat atondu, ezkeraldera
11	Zengotitabengoa kalean 11-13 portalen arteko gunean egokitzapenak egin, egoera txarrean dagoelako
12	Eskolarako bide-lagun-segurua
A5 (2013)	Probalekua atondu
A14 (2013)	Futbol zelaiko aldageletan berogailua jartzea
A15 (2013)	Futbol zelaiko taberna babestea, pergola bat ezartzea
A16 (2013)	Berriziklatu-ren ekimenari bultzada ematea eta konpostera lekuz aldatzea eta handitzea.
A25 (2013)	Autoen abiadura moteltzeko sistemak («lomo de asno» izeneko goraguz auzoan
A23 (2013)	Adinekoentzako Eguneko Zentroa

1	<i>Techar/cubrir las dos zonas de escaleras del colegio (accesos al comedor gimnasio)</i>
2	<i>Estudio filtraciones de agua al interior de la Iglesia San Juan Evangelista</i>
3	<i>Vestuarios de módulos para cambiarse los jugadores en el campo de fútbol</i>
4	<i>Zona de skate en Berrizburu</i>
5	<i>Mural-Graffiti en edificio entre Iturritza y Cengotitabengoa</i>
6	<i>Iluminación del Barrio Sarria</i>
7	<i>Aparcamientos en Bidegain</i>
8	<i>Más bancos y de madera en Geltoki y paseo depósito Berrizburu (bidego)</i>
9	<i>Paneles contra el ruido en el puente de la autopista</i>
10	<i>Acondicionar un aparcadero en la C/ Cengotitabengoa dirección Mazaga izquierda de la subida</i>
11	<i>Acondicionamiento Calle Cengotitabengoa entre el nº 11 y el 13 debido a estado</i>
12	<i>Caminos amigos/seguros hacia la escuela</i>
A5 (2013)	<i>Acondicionamiento del probadero</i>
A14 (2013)	<i>Calefacción en los vestuarios del campo de fútbol</i>
A15 (2013)	<i>Protección del bar campo de fútbol, instalación de una pérgola</i>
A16 (2013)	<i>Impulsar la iniciativa Berriziklatu, trasladar y ampliar la zona de compost</i>
A25 (2013)	<i>Lomos de asno en Sarria para reducir la velocidad de circulación</i>
A23 (2013)	<i>Centro de Día para personas mayores</i>

## 7. Hurrengo urratsak

Hurrengo saioa abenduaren 11n izango dela adierazten du aholkularitza enpresako kideak. Tarte horretan udalaren ardura izango da herritarrek egindako proposamenen bideragarritasuna aztertzeko txosten teknikoa prestatzea eta bozketara eramango diren proiektuak azaltzea.

Abenduaren 11ko foroan erabakiko dute bertaratzen direnek 100.000 euroko kopururaino iritsiz zein proposamen lehenetsi.

## 7. Sigüientes fases

El técnico de la empresa consultora indica que la segunda y última sesión de participación se celebrará el 11 de diciembre. Para entonces los servicios técnicos del Ayuntamiento se encargarán de elaborar el informe de viabilidad de las propuestas realizadas por los asistentes y se explicará cuáles son las propuestas que se someterán a votación.

En la sesión del 11 de diciembre, los ciudadanos decidirán qué propuestas se priorizarán para ser ejecutadas, hasta llegar al montante económico de 100.000 euros.